tolosaldeko eta leitzaldeko

hitza

Harpidedunei banatua ▸ Igandea ▸ 2005-12-18 ▸ III. urtea ▸ 766. zenbakia ▸ www.tolosaldekohitza.info

TOLOSA ▸

Kalejira eta herri bazkaria Bonberenean

6. urteurrenean, bete-betean ▸ 5

Egun goibela alai eta koloretsu

TOLOSA ▸ Festa giroa herriko txoko askotara zabaldu zuten atzo Gabonetako Azoka Bereziko saltzaileek eta ikusleek

AIPAMENA ▸ Zerkausian urte osoan aritzen diren baserritarrak saritu zituzten; Orioko Kepa Loidik irabazi zuen odolki lehiaketa ▸ 4-5

Jostailuak, barazkiak, artisautza produktuak, gozoak, gazta, ogia, eztia... Denetik zen aukeran atzo. Oreinak eta euskal arrazako txerriak ere izan ziren ikusgai. N. URBIZU / J. ASTIBIA

LANDARRI, S.L
Hilerrien ustiapena eta kudeaketa
Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak
- Lurpetik atera
- Gerakinen lekualdatzea
- Gerakinen errausketa
- Errausketa zerbitzua
- Hilerrien proiektuak
- Hilerrien eraldaketa
- Eraikuntza ezberdinak
- Hilobi apaingintza
- Hilarriak
- Panteoiak
- Hilobiak
- Estelak
- Fotozeramikak
- Estanpaziozko teknikak

Santa klara, 1 behea - 20400 Tolosa
Tel./Faxa: 943 67 01 14
Zerbitzu Iraunkorra: 610 552 552

Bidasoa kalea, 7 behea - 20100 Errenteria
Tel./Faxa: 943 34 04 67 - 943 51 31 41
Zerbitzu Iraunkorra: www.landarri.com

TOLOSALDEA ▸

Alkiza, Aduna eta Larraul, euskal kanta zaharren doinupean

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak bultzatuta, abesbatzak osatu dituzte ▸ 6-7

TOLOSA ▸

Herriaren begiratokiak jarri dituzte 10 puntutan

750. Urteurrena Fundazioaren esku ▸ 5

EGUBERRIAK ▸ Ate joka dira. Egun hauen jatorriak bizirik dirau egun askorentzat; beste askorentzat, ordea, galdu dute beren oinarria. Gabonei, aldaketei eta kontsumismoari buruzkoak jaso ditu HITZAk hemen

JOXE AGUSTIN ARRIETA (IDAZLE ETA IRAKASLEA) ▸

Kontrastez beteriko Gabonak

Kaleak eta dendak argiz beterik ditugu, familitasuna eta elkartasuna goraipatzen ditugu, abestiak eta agurrak bazter batetik bestera entzuten ditugu, afari goxoak eta aupadak...Eta, bestalde, egun batzuetako ametsa dirudi; zenbait familietan zuloak oso nabarmenak izaten dira, bikote krisien banaketak oso gordinak izaten dira. Umorea eta nahigabea, federik ezak jotako gizartea eta zentzu erlijiodunezko hainbat keinu eta gestu ikusten ditugu...nik uste egoera kontrajarriak bizitzen ditugula egun hauetan.

Hala ere, Gabon jaien alde nago. Agian ez dugu argi jakingo Jesus hori noiz jaio zen, badirudi abenduaren 25eko data gaizki dagoela, ez baitakigu zehatz jaioteguna; agian ez omen zen ere Belenen jaioko. Hala ere, *eguberria* zerbait berezia eta berria da, nik uste gizakia gizakoiago egiten dela/garela. Uste izaten dugu gure barnean ez dagoela bakarrik alde kontsumista eta diruzalea, ez dela jai hau ohitura sozial hutsa...

Batzuetan entzuna daukat jaietan jairik tristeenak hauek direla, agian gizakiaren kaxkarkeria gehiago ateratzen delako; zoriontzen omen gara eta gero kakaputz, inguruan zoritxarra sortzen omen dugu. Agian ez da gezurra izango. Baina gure historia ez ote da bi aurpegiko txanpona bezala: poza eta tristura, maitasuna eta gorrotoa, familia eta banaketa, alaitasuna eta negarra, senidetasuna eta apurketak, ilusioa eta frustrazioa, ondasunak eta pobretasuna. Neurri batean hala da. Baina esan nahi nuke kontsumozko jai hauen barruan badagoela gose-egarri bat: iluntasunean argiaren beharra, ezintasunean ahal duen norbait baten beharra, kalegorritasunean justiziaren beharra, giza-zapalkuntzan duintasunaren beharra...

Benetako Gabon jaien aldeko aldarrikapena egin nahiko nuke. Gabonetako erlijio-misterio hori zerbait usaintzea eta sentitzea, horixe bai benetako loteria. Urtero ospatzen dugu, pozik eta jai giro alaian ospatu ere. Baina Jesusen jaiotza eta hor gertatu den harrigarritasuna ulertzea zaila egiten zaigu. Zarata eta buila gehiegi daukagu alboan eta barruan, gainera kosta egiten zaigu barnera jotzea. Arrazoi batengatik edo besteagatik barrura sartzen ez garenean, kanpotik bilatu nahi izaten dugu barruan ez daukaguna. Eta hor gabiltza aldabaka, aldabatik aldabara: dirua, ospea, izena, lanpostua, etxea, itxura... Hortik, berriz, zeingehiagotasuna datorkigu.

Horrelaxe pentsatzera jarrita gaude, ordea, gaurko gizon-emakume ez gutxi: geure buruaz kanpora aurkitu nahi dugu zoriona, kanpoan bilatzen ditugu poza eta alaitasuna. Hor ibiliko dira hainbeste jende dantza eta soinu, istilu eta algara, orru eta... Baina, gero? Kanpoko algara eta gauzak ez dira bihotz barneraino sartzen. Horregatik, huts gelditzen zaie bihotza, hutsik gelditzen beren barnea. Benetako eta egiazko iturria ez dago kanpoko gauzetan: gure barnean daukagu.

Garrantzitsuena hauxe deritzot: nahiz eta ez jakin abenduaren 25ean jaio zen, edo Belen ote zen bere jaioterria, ederra da Jaungoiko haundi ezkutuaren berria norbaitek eman digula nabaritzea, gainera maitasunez adierazi zuela; eta, bestetik, behar guztietan gurekin elkartasuna egitera etorri zela, bai bizitzan ala heriotzan, noski Nazaretheko Jesusetaz ari naiz («gure artean jarri zen bizitzen...», Jn 1,14).

Eta urte berria gainean dugu. Jarraitu beharko dugu bizitzen eta ez existitzen, sentitzen eta maitatzen, hurbiltzen eta laguntzen; azken finean, bizia sortzen, eusten eta zaintzen. Bizitzak aski baitu urratu bat birsortzeko.

Bihotzez agurtzen natzaizu. Ez da makala hainbeste gauren artean, halako batean GABON esatea. Egia ote da hau guztia, hala mito bat da? Zeuk daukazu erantzuna.

MIKEL BEZUNARTEA (NAFARROAKO MENDIALDEKO KONTSUMITZAILEEN BULEGOKO TEKNIKOA) ▸

Eguberrietan, 'zer berri, zaharrak berri'

Aizu, Eguberrietan kontsumoari buruzko zerbait prestatzea nahi genuke; badakizu, gastu itzela izaten da eta dirua ez xahutzeko aholkuak eta bidezko kontsumoaren gaineko argibidea ongi etorriko zaigulakoan gaude». Ohiko eskaera dugu hori, kontsumitzaile elkarteetako kideoi tenore honetan urtero egiten zaiguna.

Nonbait, gure aholkuak baliogarriak dira arestian aipatutako bi helburu horiek lortzeko. Beharrik ere, Eguberrietako gastua urtero igo eta gehiegizko kontsumoaren ondorio larriak gero eta nabarmenagoak dira eta. Munduko pobreziari eta ingurumenari baino ez diegu begiratu behar zerbaitek huts egiten duela antzemateko.

Egoerarekin arduratuta argibidea eskatzen duenari bere asmo ona eskertu nahi diot eta gainerakoi, berriz, Eguberrietan ez ezik urte osoan arduraz jokatu behar dugunoi belarritik tira, neure burutik hasita, aurten ere huts egin dudalako nabarmen.

Urtetik urtera gure gastua igo egiten da poliki. 1999ko Eguberrietan 630 euro gastatu zituen familia batek batez bertze, eta 2003an 845 euro. Horietatik, jostailuetan gastatu zen gehien, familiako 141,5 euro; atzetik ziren bazkariak etxean, 132,3 euro; jatetxeetan, 127 euro; gastuak aisialdian, 126 euro; loterian, 121,6 euro; oparietan, 113 euro; eta bestelakoetan, 84 euro (Espainiako Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Konfederazioaren 2003ko datuak dira). Bilakaera hori hala segituz gero, aurten gehixeago xahutuko dugu gure intentzio onei bizkarra ematen badiegu. Gure kontsumoari dagokionez, gainera, usterik ezkorrenak betetzen dira datu horiek ikusita.

Horregatik, hain zuzen ere, kontsumitzaile arduradunaren beharra aldarrikatu behar dugu beti eta gehiago, hau da, argibidea eta beharretatik abiatuta erabakiak hartzen dituena. Izan ere, bidezko kontsumoa zerbitzuen gaineko informazioa bilatuz, kontsumo erabakien ondorioei erreparatuz eta independentziaz jokatuz etorriko delakoan gaude.

Bide horretan, publizitatea dugu gaur egun mezulari aparta Eguberrietan. Bere mezuak komunikabide zein gainerako bitartekoen bidez zabaltzen dizkigu egunero, eta gauza eta zerbitzuen berri ez ezik horien beharra ere sorraraztendigu. Mezu-egileek ederki dakite garai honetan gehiago erosteko prest gaudela. Publizitatea komunikazio subjetiboa eta interesatua da, eta jarrera kritikoarekin aztertu behar dugu; hala, hauxe gure lehen aholkua: ez utzi publizitateari gure erosketak bideratzen.

Honako bertze aholku hauek ere baliagarriak izan daitezke Eguberrietako kontsumoari begira: etxetik atera baino lehen, behar duzunarekin zerrenda bat prestatu eta hori baino ez erosi. Aurrerapen dezenterekin eta patxadaz erosi, eta kontuan hartu Gabonak hurbildu ahala produktuak garestitu egiten direla. Produktu berak denda desberdinetan duen prezioa aztertu eta konparatu. Erositakoaren tiketa edo faktura eskatu eta denbora batez gorde. Garantia eskatu, sinatzeko edo zigilatzeko esan, eta gorde. Jabarien etiketak konprobatu: osagarriak, gordetzeko eta prestatzeko argibideak...; guztiek garrantzia badute ere, iraungitze datari erreparatu bereziki. Jostailuak CE marka izatea eta umearen adinari egokitzea hartu behar da kontuan. Ez liluratu promozio berriekin, eta produktuaren bakarkako prezioa kalkulatu. Gabonetako pinua jartzekotan, artifizala erosi, urtero erabili ahal izango duzulako eta ingurumena zaindu egingo duzulako hala.

Oro har, beharrezkoak ez diren gastuak sahiestu. Izan ere, ez dugu zertan diru asko gastatu Gabon zoriontsuak igarotzeko.

UZTURRETIK ▸ **RAMON OLASAGASTI**

Bi urteko ikuspegi zabala

Manex eta biok Uzturrera abiatu gara gaur, Manex bizkarreko motxilan, begiak zoli, adi-adi. Bidean, joanean, ez naiz konturatu, baina gailurrera iritsita inoiz baino ikuspegi zabalagoa agertu zait begi aurrean. Han urrunean, Buruntza azpian, *Egunkaria* ikusi dut, guardia zibilez inguratuta. Eta Araba etorbideko azpi batean ezohiko zalaparta: hainbat lagun *Tolosaldean Egunero* zena Euskal Herri osoko *Egunero* bihurtzeko ahaleginean. Ondarretako inguru hartatik ere sekulako jendetzaren oihu minak entzutea iruditu zait. Bat-batean, Manexek kox-kox egin dit buruan, eta lokamutsetik esnarazi nau. Berriro ere Buruntzapera begiratu eta Martin Ugalde parkean, beste lagun asko ikusi ditut lanean. *Berria*-n. Martin Ugalde bera ez dut ikusi; hura ere, amesgaiztotik esnatu eta *Berria*-ren berri jakin duenean, joan egingo zen norabait, lasai eta harro.

«Ikusten, Manex, zenbat gauza ikusten diren hemen Uzturretik. Begira, Aralar eta Aizkorri aldean zenbat elur dagoen», esan diot. Elurra. Bat-batean Tolosa osoa iruditu zait elurpean zegoela, iazko otsailaren hondarrean bezala. Eta hezetu egin zaizkit begiak. Manexek lepoa luzatu eta harritu antza begiratu dit bizkarretik. «Elur asko egin zuen, Manex, amona joan zen egunean. Polita da elurra, baietz? Elurra egiten duen bakoitzean amonarekin gogoratu bai, hala bere oroitzapen polita izango duzu». Ez zuen amona ezagutu, irailean etorri zen Manex, elurrak urtzera.

Bi urte jada, Uzturre gain honetara noiz edo noiz etortzen naizela. Ibilian-ibilian, ordea, bat ez da konturatzen zein azkar doan denbora, zenbateraino aldatu litekeen bizitza bi urtetan. Ze bi urte! Askotan nahikoa da segundo bat dena goitik behera iraultzeko. Elur-jauzi bat, jaiotza bat, istripu bat, lagun berri bat... Ibilian-ibilian ez gara konturatzen azkar doala bizitza.

Begirada galduta nuela, Manexek atera nau berriro neure pentsamenduetatik. «Ama, ama!», hasi da oihuka. Ene, azkar joan zaigu denbora, arrazoi du Manexek, beharbada Lorek atera nahi du jada amaren barne abarotik.

Bai azkar igarotzen direla bi urte. Tontorrean zeudenak agurtu eta abiatu gara. Aldi batean ez gara itzuliko Uzturre alde hauetara. Ikusi arte!

KOMIKIA ▸ **GORKA SALABERRIA**



ALEGIA ▸

Gaztetxean, Manu Joubert, McKinley-ri buruz

18. urteurreneko ekitaldietan murgilduta jarraitzen du Gaztetxeak. Gaur, FTI kolektiboaren *Kaputen kanta* antzezlana izango da ikusgai, 19:00etan. Bihar, Manu Joubert alegiarrak McKinley-ri buruzko proiekzioa eskainiko du, ordu berean.

IRURA-IBARRA ▸

Loatzo Musika Eskolakoen emanaldiak

Loatzo Musika Eskolak kontzertua eskainiko du gaur, 11:00etan, Iruran; bihar Ibarran ariko da, 19:00etan.

FARMAZIAK ▸

Gaur eta biharko guardiako farmaziak

Hauek dira gaurko guardiako farmaziak: Azpiroz (Amaroz, 9. Tolosa. 943 67 51 18) eta Goizueta (Loidi etxea. Areso. 112). Bihar, berriz, Etxebeste (Gernikako arb., 3. Tolosa. 943 65 10 40) eta Erbiti (Lizarraga, 7. Leitza. 112).

iragarki laburrak ▸

ESKARIAK
Josteko makina. Josteko makina portatil motorduna erosi nahi dut. 665 71 35 39.

GALDUTAKOAK
Betaurrekoak. Graduatutako betaurrekoak galdu ditugu hilaren 15ean. 943 67 28 53.

LANA
Neskamea. Neskamea behar da Alegian etxeko lanak egiteko, 10:30etik 14:30era. 943 65 30 34.

OPARITZEKO
Txakurkumeak. Arratoi-txakurrak oparitzen ditut, hilabete eta erdikoak. 645 70 68 21. Inma.

SALGAI
Etxebizitza. Altzon etxebizitza bifamiliar berria. 200 m2ko etxebizitza. 160 m2ko loretegia. 652 77 79 59.
Autoa. Chrysler Voyager diesela salgai, extra askorekin. Oso egoera onean. 626 07 85 31.
Egurra. Su egur lehorra salgai. Pagoa eta haritza. Telf.: 615 75 57 62 (arratsaldetan).

iragarki laburrak ▸

Garbitzaileak. Lan finkoa: eraikin publikoak, ikastetxeak, ospitaleak. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informa zaitez. 943 31 37 82.
Gidariak. Aldundian behar dira. Behin betiko kontratua. Informa zaitez: 943 31 37 82.
Urgentea. Haur zaintzaileak behar dira, haur eskoletako hezitzaileak. 943 31 37 82.
Ohar garrantzitsua. Ezintasun fisikoren bat badaukazu, lor ezazu postu finkoa. %5 erreserbatua. Doako informazioa ondoko telefono zenbakian: 943 31 37 82.
Suhiltzaileak, udaltzaingoa. Udaletarako lanpostuak. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Administrari laguntzaileak. Lanpostuak udaletarako. 1.200 euro. Lanaldia: astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Laborategia. Lanpostuak: teknikoak, ikertegiko laguntzaileak, Eusko Jaurlaritza. Informazioa doan. 943 31 37 82.

GABONETAKO AZOKA BEREZIA ▸

Gabonak jakiz hornitzeko

Baserritarrek urte guztian zehar egindako lan eskergarekin, Gabonetako Azoka Berezian ere, postuen kolore biziek, egun goibela alai eta argitsu bihurtu dute

Azoka. Zerkausian larunbatero-larunbatero euren produktuak saltzen aritzen diren baserritarrak izan ziren protagonista atzoko egun apartekoan. JAIONE ASTIBIA

Odolki lehiaketa. Sariak eskuan, ezkerrean Lasarte-Oriako Larrañaga haratregikoa; eskuinean Orioko Loidikoa. NEREA URBIZU

Gozoak. Tolosaldeko gozogileek ere, euren gutizia goxoak erakusgai eta dastagai jarri zituzten. Eta, noski, erosgai ere. N. URBIZU

NEREA URBIZU / JAIONE ASTIBIA

Atzo eguerdiartean burutu zuten Gabonetako Azoka Berezia, eta Zerkausian urte guztian zehar lanean aritu diren baserritarrei egindako lanaren errekonozimendu gisa, egin ere.

Berezia izaki, Zerkausian ez ezik, erakustaldia beste hainbat txokotara hedatu zen, azken finean festa egun ederra eginez, herriko kaleetan nonnahi musika, jendea, koloreа... eta non-nahi jakien usain gozoa: atzokoan jakiak izan ziren eguneko protagonista.

Askotariko jakiak, beraz. Zerkausian, barazkiak eta fruituak, gazta, loreak, ogia... ageri ziren postuetan, urte guztian legez, eta hain zuzen ere atzokoan, lan hori eskertzeko modu gisa, hainbat sari banatu zituzten, bost guztira, eta sarituek trofeoa eta 50na euro jaso zituzten. Lore eta barazkien koloreak eta fruituen eta, batez ere, Errezil sagarren usainak, itzulia egiten ari zirenak erakarri eta asko eta asko erosketak eginez aritu ziren.

Handik gertu, Plaza Zaharrean, aziendak zeuden erakusgai. Baina bereziak: euskal txerria eta oreinak, biek hala biek ere, arreta berezia sortu zuten. Ez baita oso arrunta herriko plazan oreinak ikustea, ez eta txerrama bat bere txerrikumeak ondoan dituela ikustea ere. Haztegi berrien eredu izan daiteke, bata; berreskurapen lan zailarena bestea. Baina ikusgarriak, hara bertaratu ziren guztientzat, inolako zalantzarik gabe.

Eta jaki batzuetatik besteetara igaroz, Trianguloan ere bazen zer ikusia, zer erosia eta zer dastatua. Tolosaldeko hainbat gozotegik jarritako postu *goxoetan* barrena ibilita, zaila baitzen tentazioari lekurik ez uztea; edota odolki zatiren bat ere ez dastatzea, han egin baitzen, gainera, XIV. Azoka Berezi honen baitan, odolki lehiaketa ere.

Eta eskulangileen erakusketa ere izanik, askotariko postu mordoska ikusgai izan ziren.

Festaz gain, aldarriak ere leku izan zuen, Gerontologikoaren Aldeko Plataformak sinadura bilketa egin baitzuen, besteak beste, bertako behar izanak aseko dituen zerbitzu bat eskatzeko helburuz.

SARIAK ▸

URTE GUZTIKO LANAGATIK

Barazki onena.
▸ 1. Kasi Izagirre.
▸ 2. Axun Aizeburu.

Fruta onena.
▸ 1. Angel Arregi.
▸ 2. Maritxu Eraso.

Errezil sagar onena.
▸ 1. Jose Antonio Aizpuru.
▸ 2. Josefa Mujika.

Postu politena.
▸ 1. Pilar Unanue.
▸ 2. Maria Luisa Zuriarrain.

Barietate handienekoa.
▸ 1. Eugenia Agirretxe.
▸ 2. Petra Ariztimuño.

ODOLKI LEHIAKETA

1. Kepa Loidi (Orio).
2. Patxi Larrañaga (Lasarte).

Animaliak. Oreinak plazan ikusgai izan ziren. Izugarri politak, eta badirudi izugarri onak ere omen direla, jateko. J. ASTIBIA

Artisautza. Betiko postuez gain, jakirik ez saltzen ez zuten postuak ere baziren: kasu honetan, artisaulanak eta lanpara bereziak. J. ASTIBIA

Aldarria. San Frantzisko elizaren arkupean aritu zen Martin Mantso, Gerontologikoaren Aldeko Plataformako kidea. N. URBIZU

AZOKA ▸

Atzokoa azoka jendetsua izan da eguraldia berotuz

Bizitasuna nagusi, azoka berezia zela medio; urte guztiko lana ere saritu dute

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna, nahiz eta oso euritsua eta hotza izan, bizi-bizia suertatu zen. Gabonetako Azoka Berezia zela eta, erosle eta bisitari asko gerturatu ziren herrira, eta plaza guztietan izan ziren postuak ere, eta hauekin eskaintza.

Aipatzekotan kardua, pazko-lorea, Gabonetako pinua edota Tolosako Babarruna aipatu behar dira, hauexek izan baitziren berrikuntzak.

Esan beharra dago dagoeneko perretxiko eskaintza agortu dela. Aurten asko luzatu den arloa izan bada ere, eta normala denez, Gabonetarako bukatuta dago. Orain udaberrira arte itxaron beharko da aurreneko zizak ikusteko.

Ohiko lehiaketa ere izan zen atzokoan.

AZOKA ▸

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Porrua	2,40	-
Kiabelina	4,00	9,00
Bertako produktuak		
Usoa	5,00	6,00
Muzpirak	2,00	2,50
Produktu ekologikoak		
Kalabaza	1,60	3,04
Tipula	1,75	2,00
Sagarra	2,00	3,00
Intxaurrak	4,00	6,00

KULTURA ▸

Bonberenea txaranga lanean

N. Urbizu ▸ Bonbereneako gazte talde musikariak ederki asko daki kaleetako giroa alaitzen; zeresana eman zuten atzokoan musikari hauek; izan ere, erraza izan zen haiek topatzea eta ikustea, sortu soinu alaiekin eta koloreekin. Dena dela, ez zen erraza denak batera ikustea, batez ere atzoko jendetzarekin. N.URBIZU

TURISMOA ▸

Begiratokiak turisten eskura

N. Urbizu ▸ Begiratoki bereziak ditugu Tolosako 10 puntutan: bertan, herria horren ongi ezagutzen ez duen bisitariak interesekо guneak zeintzuk dituen aukeran ikusteko jakin dezan. Irudian, Gurutze Zubeldia Tolosa 750. Urteurrena Fundazioko koordinatzailea eta Andoni Iturzaeta Kultur zinegotzia, inaugurazioan, atzo, begiratokietako bat erakusten. Turistei zuzenduak egon arren, ziurrenik Tolosako baten batek ere ez ditu bere herrian dauden bisitatzeko leku guztiak ezagutzen. Nahi izanez gero, beraz, gehiago ikusi eta ikasi ahal izango da haiekin. J. ASTIBIA

hilberriak ▸

Joxemai Irigoien

Zurekin egindako barreak
eta pasatako une goxoak
inoiz ez zaizkigu ahaztuko.

Bere lagunak: Migel Anjel eta Juli, Joxe Kruz eta Maria Jesus, Koldo eta Jone eta Maria Luisa.

ERREZIL, 2005eko abenduaren 18a

Jose Antonio Aztiria Mendizabal
JAUNA

Atzo hil zen 88 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

– Gotan bego –

Emaztea: Francisca Agirre; seme-alabak: Isabel eta Juanito Makibar, Manuel, Itziar eta Rosa Mª Etxaniz, Antonio eta Arantxa Osinalde, Jose Mª eta Arantxa Mendiola, Lucio eta Maite Munua, Juan eta Mª Karmen Zubillaga, Mª Jesus eta Manolo Lopez, Eva eta Floren Gutierrez, Xarlos eta Idoia Mendizabal; anai-arrebak: Isabel (+), Julian (+) eta Tere Zabala, Antonina eta Lucio Agirre (+); ezkon anai-arrebak: Isabel (+) eta Patxi Mariezcurrena (+), Manuel (+), Bittori eta Juan Apaolaza (+), Poloni, Fernando (+) eta Encarna Iturritegi, Antonio eta Juanita Apaolaza (+), Juanita eta Juan Aldaz (+), Jose (+); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezkete BIHAR ASTELEHENA, arratsaldeko 7etan, Legazpiko parrokian.

ohorra ▸ gorputz kontserbazioa GAUR egundaino ordutxakun izango da Legazpiko Parroki Elizan.

LEGAZPI, 2005eko abenduaren 18a

Jose Antonio Aztiria Mendizabal
– Gotan bego –

Atseden gabeko lana
izan da zure bizitza
maitasuna ta bihotza
ama eta zuretzako
zure hutsunekin, aitte
ez da berdina Urtatza

Zure familia

LEGAZPI, 2005eko abenduaren 18a

MUSIKA ▸

Abestearen xarma

Abestea gustuko dutela eta, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak bultzatuta, hainbat lagun elkartu egin dira euskal abesti zaharrak berreskuratzeko, horiek kaleratzeko eta ondo pasatzeko asmoarekin

IMANOL GARCIA

«Ideia hor zegoen. Donostian hilean behin elkartzen dira, beti larunbatetan, Intxaurrondoko abesbatza, Amara Berriko abesbatza, Antiguokoa... Eta ohituta nengoen bertara joaten. Hala, bururatu zitzaidan ondo legokeela Aiztondon hori egitea. Kasualitatez, hiru herri dinamizatzen ditut, eta horietan egitasmoa bultzatzeko aukera ikusi nuen»», dio Itsaso Gonzalez de Leidak, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateko dinamizatzaileak. «Abiapuntu horrekin hasi ziren lagun taldeak biltzen Alkizan, Adunan eta Larraulen, euskal abestiak kantatzeko asmoarekin.

Egun Alkizan abesbatzak nahiko sendotasuna hartu du; Adunan lauzpabost prest daude kantuan aritzeko eta alkizarrekin batera parte hartu dute zenbait emanalditan; Larraulen ez da oraindik guztiz gauzatu, baina afarietan parte hartzeko prest agertzen omen dira. Helburuak horrela definitu ditu dinamizatzaileak: «Euskal abesti zaharrak berreskuratzea, kaleratzea eta hori guztia egiten ondo pasatzea». Deialdia egin aurretik hitz egiten aritu zen batekin eta besterekin, eta Alkizan, esaterako, hirugarren deialdian hamar lagun inguru batu ziren ideiak tentatuta. «Horrekin martxan hasi ginen», dio dinamizatzaileak. «Itziar Zamora Intxaurrondoko abesbatzaren zuzendaria da eta berak utzi zizkidan musika eta hitzak, eta horrela hasi ginen».

Adunako kasuan lehenengo bileran hamar bat lagun bildu ziren. «Han ohituta daude mezan abesten, ahotsa landuagoa daukate, eta horregatik-edo nahiago zuten irakasle bat izatea. Une horretan ez genuen ideia hori eta, horrela, hasieran bildutakoetatik lau bat gelditu ziren». Larraulen bi-hiru deialdi egin zituzten, eta han bost bat lagun ere agertu ziren. Udaz geroztik, baina, ez dira elkartu.

Lehenengo egitasmoa afariak antolatzea izan zen. «Hiru herrietakoak elkartzea zen helburua eta elkarrekin abestea», azaldu du dinamizatzaileak. Lehenengoa Larraulen izan zen. 21 lagun elkartu ziren eta giro ona zen nagusi. Bigarren afaria Adunan izan zen, eta hirugarrena Alkizan.

Jendeak ez du orokorrean musika ikasketarik, baina bai abesteko gogoa. «Denborarekin talde guztiek eskatzen dute irakasle bat. Ikusten da, behin abesten hasiz gero, ahotsa lantzea ondo etortzen dela», dio Gonzalez de Leidak. «Denborarekin suposatzen dut irakasle bat izango dela. Baina orain, nolabait, jendearen asmoa zein zen eta nolako dinamika sortzen zen ikusi nahi zen». Afariak egiteko asmoa ez da behintzat faltako, eta hilean behin saiatuko dira elkarretaratze gastronomiko-musikalak antolatzen.

Kaleko giroan

«Gustatzen zait abestea eta kantu zaharrak asko gustatzen zaizkit», dio Alkizako abesbatzako kide batek, ekimen honetan parte hartzeko arrazoiak galdetuta. «Oso gustura elkartzen gara», gaineratu du. Dagoeneko ekitaldi batzuk antolatu dituzte aurten herrian, eta ikusten da indarra hartu duela abesbatzak. Santa Agedan, Antonio Zubiaurre alkate ohiari egindako omenaldian, San Joan bezperan, herriko jaietan adunarrekin eta San Martin Egunean ere adunarren partehartzearekin. «Enbidoak botatzen dira hemen», dio kide batek ekitaldien antolaketei buruz, «eta hurrengo enbidoa Gabonen inguruan zerbait egitea da, Inuzente Egunean, hain zuzen ere».

Egun horretan, alde batetik Zizurkilgo Fraisorora joateko asmoa dute, bertan daudenei Gabon-kantak eskaintzeko. Bestetik, herrian gaztainak erretzeko ideia plazaratu dute, eta horren inguruan Gabonkantak abestea. Giroa sortzea da helburua, eta abesbatza osatzen dutenetaz aparte haiekin biltzea abesteko.

Adunan egin zuten emanaldiarekin, Upelera sagardo festan, adunarrekin batera, gustura gelditu ziren: «Musikaz dakien batekin aritu ginen eta bi abesti ikasi genituen bigarren ahotsa sartuz. Asko biribildu gabe egin genuen, baina gustatu zitzaigun», dio kide batek. «Horrelako emanaldi batek eskatzen duen diziplina aurrera eramateko ez dakit zenbateraino prest gauden. Gustatzen zaigu tarteka-tarteka landutako abesti batzuk kantatzea, baina horrek eskatzen duen diziplina...».

Irakasle bat izatearen ideia ere ahotan darabilte alkizarrek, baina kide batzuek ez dute hain garbi: «Abesbatzen elkartera joz gero, izaten dira gazteak, konposizioa ikasten ari direnak, prest daudenak herri txikietara etortzeko. Gertatzen da kanpotik ekartzen badugu norbait astero, eta gu entsegu batean bi, bestean lau, hurrengoan zazpi etortzen ba-

San Martin Egunean Alkizako elizan herriko abesbatzako kideek eta Adunakoek emandako kontzertuaren une bat. HITZA

Adunan egindako Upelera sagardo festaren baitan, herriko abeslariek eta Alkizatik joandakoek kontzertua eskaini zuten. HITZA

gara, pertsona horrentzat ez da lana egiteko modu egokia». Horrelako dinamika bati erantzun egokia emateko zailtasunak ikusten dituzte, beraz. Horrek, baina, ez du esan nahi ez dutenik esfortzurik egiten ekitaldiak prestatzeko: «Hasiera batean hilabetero elkartzen hasi ginen. Baina konturatu ginen gutxiegi zela, eta geure buruari galdetu genion ea ez al genuen libre egun bat astean elkartzeko, eta horrela astero biltzen hasi ginen». Irakaslea ekartzeari dagokionez, beste iritzirik ere badago: «Formula bat bila daiteke. Irakaslearekin hitz egitea izango litzateke eta adostasun batera iristea». Kide batek irakasleak emango zuen laguntza azpimarratu du: «Ahotsa lantzea interesgarria da, norbait izatea ondoan zuentzeko».

Entseguetan haiek dira abeslariak eta baita entzulegoa ere. Jendearen aurrean hori aldatu egiten da: «Hasieran pixka bat beldurtuta sentitzen ginen. Geure burua oholtza gainean ez dugu ikusten hain eroso. Nahiago dugu kalean ibiltzea, leku batean gelditu eta han bertan abesten hastea. Ondoan daudeni paperak pasatu abestiekin, eta nahi duenak gurekin abestea. Giro hori nahiago dugu».

Azkeneko ekitaldia San Martin Egunekoa izan zen. Tobera eta guzti egin zuten emanaldia herriko elizan, Adunako abeslariek lagunduta. Imanol Lizardik koplak idatzi zizkien —beste zenbait ekitaldietarako ere egin du— eta horiek abestu zituzten. Orain kalejirak egiten dituztenean tobera ateratzea pentsatzen ari dira: «Irakurri genuen lehen tobera erabiltzen zela parrandak egiteko…».

Abesbatza bat sortzea bezalako ekimenek ere beste helburu bat betetzen dute herri txikietan: bizia ematea. Ekitaldiak ez dira ugariak izaten Alkiza bezalako herrietan eta, gainera, herritar batzuk horrelako egitasmo batean parte hartzea eta egiten dutena kaleratzea beste bizitasun bat ematen dio herriari. Abesbatza «oso irekita» dagoela diote eta nahi duenak parte hartzera animatzen dute. Gainera, kide batzuk ez ziren elkar ezagutzen eta abesbatzak ere funtzio hori bete du, herritarren artean harreman berriak sortzea. Horren harira, entseguen ondoren tabernan egiten duten jarraipenaren garrantzia aipatzen du kide batek.

Inbidia sanoa sortzen

Adunan lau lagun badira ere taldeari egonkortasuna ematen diotenak, zenbait emanaldietarako hamar ere bildu dira. Abesteko gogoa hedatuta dagoen seinale. «Etorriko ziren gehiagotan, baina konpromisoak direla-eta ezin dute», azaldu du kide batek. Elizan talde bat aritzen da abesten eta hori izan da, nolabait, taldearen harrobia. Aurten Upelera sagardo festaren baitan kontzertua eman zuten alkizarrek lagunduta. Zenbait kidek ere parte hartu zuten Loatzo Musika Eskolarekin batera, orain bi urte-edo herriko Kultur Astearen baitan egindako ekitaldi batean.

«Itsasok [dinamizatzaileak] irteera batean, autobusean gindoazela, komentatu zuen abesti zaharrak berreskuratzearena, elkartasuna bultzatuz», dio kide batek taldea nola bildu zen azaltzeko. «Arreta deitu zigun horrek, eta hortik sortu zen txinparta. Gero, Itsasok, giroa bazegoela ikusirik, gehiago bultzatu zuen». Dinamizatzaileak ere badu zer esanik: «Taldeko batzuek Donostian egiten den hileroko kantujiran parte hartu zuten eta gustatu zitzaien giroa. Bagenekien ez zela han bezalako dinamikarik sortuko, herria txikiagoa delako, baina ideia berarekin, hau da, elkartu, abestu eta ondo pasatzeko asmoarekin, biltzen hasi ginen».

Upelerako emanaldiarekin oso gustura gelditu ziren. Maite Oiartzun adunarrak hartu zuen abeslariak dinamizatu eta zuzentzeko ardura, eta taldeko kideek bere lana goraipatzen dute. «Jendeak esan zuen inbidia ematen ziola guri han ikusita abesten. Gogoa ematen ziela oholtzara igo eta abesten hastea. Hori izan zen berririk onena. Hasieran pixka bat urduri ere baginen, baina gero oso gustura, eta disfrutatu egin genuen»», dio Oiartzunek emanaldiari buruz. «Gure nahia ere hortik doa», gaineratu du beste kide batek. «Ez da gure arteko kontu bat. Zuk ere nahi duzula abestu, ba etorri eta parte hartu».

Emanaldien inguruan bi modu ezberdinak azaltzen dira abestiak kaleratzeko. Alde batetik, kaleko giroan aritzea; eta, bestetik, jendeaurrean kontzertuak ematea. «Tabernaz taberna galdu egiten da. Batzuk bidean hizketan gelditzen direla, gero beranduago sartzen direla abestian... Kontzertu batean beste atentzio bat behar da», dio Adunako taldeko kide batek. «Nik uste dut bi moduak konplementarioak direla», dio beste batek.

Modu batera edo bestera, abestearen xarmak bultzatuta, pixkanaka-pixkanaka abesbatzen inguruan mugimendua sortzen ari da herri txiki horietan. Kantatzeko grina duenak badu aukera, beraz, parte hartzeko. Abesbatzetan, behintzat, gustura hartuko dituzte kide berriak.

TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Eztabaida. 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera, lege berriaren arabera, lantegietan ezin izango da erre. Zer iruditzen zaizu? Sartu webgunean eta eman zure iritzia.

Tolosako Udala

IRAGARKIA

TOLOSAKO UDALARENTZAT ARKITEKTO-TEKNIKO BAT ALDIBATERAKO KONTRATATZEKO DEIALDIA

Tolosako Udalak konkurtso bidez arkitekto-tekniko bat aldi baterako aukeratu behar du, obra eta zerbitzuetako departamentuan aldi baterako ez gaitasun zein amatasun baja betetzeko.

Oinarriak eta eskaera egiteko orriak, Tolosako Udaletxeko Informazio eta Erregistro Zerbitzuan daude interesatuen eskura, Plaza Zaharrako 6 A zkian, edota udaleko web orrian ().

Eskaerak aurkezteko epea 2006ko urtarrilaren 5ean bukatzen da, eguerdiko 13,00tan.

3. hizkuntza eskakizuna aurkeztu ez dutenentzat, euskarazko froga urtarrilaren 11an, goizeko 9,00tan egingo da udaletxean.

Tolosan 2005eko abenduaren 13an.
ALKATEA,
JOKIN BILDARRATZ SORRON

GK

Tao-Ota Tolosak 2006 urterako bertakoentzako txartelak berrizta ditzakezuela jakinarazten dizue.

Ordainketa helbideratuta daukatenei zuzenean kobratuko zaizkie 30 euro eta etxera bidaliko zaie txartela. Ez dute zertan Tao-Ota Tolosaren bulegoetara jo.

Ordainketa helbideraturik ez daukatenek, autoaren matrikula eta izen-abizenak ezarriz, honako banketxeren bateko kontuan egin beharko dute ordainketa:

Kutxa: 2101 0152 64 0011437589

Caja Laboral: 3035 0028 14 0280091240

Ordainketa egin ondoren Gorosabel kaleko 48an dauden bulegoetara jo eta ordain-agiria aurkeztu beharko dute txartela jaso ahal izateko.

Txartelak autoaren aurreko aldeko leihoaren ondoan, toki ikusgarriren batean jarri beharko dira urtarrilaren 15a baino lehenago.

Tolosako higikortasun plana
Tao-Ota Tolosa

tolosaldeko eta leitzaldeko

hitza

ARGITARATZAILEA. Tolosa Herria Hedabideak S.L.
LEGE GORDAILUA. SS-0398-03
ZUZENDARIA. Leire Montes
EGOITZA NAGUSIA. Araba etorbidea 5, atzea, Tolosa
TELEFONOA. 943 65 56 95 **FAXA.** 943 65 00 18
LEITZA. Herriko plaza 1. 687 410 118
E-POSTA. tolosaldean@tolosaldekohitza.info
WEBGUNEA. www.tolosaldekohitza.info

TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.L.KO KIDEAK:
BERTAKO HEDABIDEAK
eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
77 gizarte eragile

HITZA-K BAI EUSKARARI

Zuzendariordea. Iratxe Etxebeste. **Kudeatzailea.** Itziar Zulueta. **Publizitatea.** 661 678818. tolosaldean_publi@tolosaldekohitza.info. **Tolosa.** 687 410082 - 687 410033. tolosa@tolosaldekohitza.info. **Villabona-Aizt.** 687 410022. villabona-aiztondo@tolosaldekohitza.info. **Anoetaldea.** 687 410022 anoetaldea@tolosaldekohitza.info. **Ibarraldea.** 687 410032. ibarraldea@tolosaldekohitza.info. **Alegialdea.** 687 410034. alegialdea@tolosaldekohitza.info. **Leitzaldea.** 687 410118. leitzaldea@tolosaldekohitza.info.

Harpidedunei banatua ▸ 2005eko abenduaren 18a, igandea ▸ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK
udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alto, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bernedi, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil
besterik: Leitzaldeko Euskara Batzordea
Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena 10 hotzena 7
BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez
ELURRA ARALARREN Guardetxe: gaur: bai / bihar: bai Pagomari: gaur: bai / bihar: bai

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...) 943 30 43 46

AGURRAK ▸

URTE ASKOAN
Nahia Dominguez Iribarren (Tolosa). Bihar 9 urte.
Zorionak etxekoen partetik.

URTE ASKOAN
Oihan Calahorra Murua.
Gaur 2 urte.
Familiaren partetik.

ZORIONAK
Maialen Berasategi (Tolosa).
Bihar 6 urte. Zorionak aita, ama eta zure ahizpa Izaskunen partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

ZORIONAK
Estatus politikoaz, euskal presoak Euskal Herrira orain!
Zorionak, Ana Belen, biharko partez.

ZORIONAK
Isilik itxaroteak jada ez du balio; hobe zutik saiatu belauniko bizitzea baino.
Zorionak, Ana Belen, biharko partez.

hitzak zure marrazkia argitaratuko du!

Nola ikusten duzu zure herria?
bidali zure marrazkia!
3 eta 12 urte arteko haurrak,
bidali zuen marrazkiak HITZAko egoitzara (Araba etorbidea 5, atzea Tolosa 20400), zuen izen-abizenak, adina eta marrazkiaren azalpen labur batekin). Marrazkiaren formatua: DIN A4

Parte-hartzaileen artean sariak zozketatuko ditugu. Marrazkien erakusketa egingo du urtarrilean Tolosako Alde Zaharra Merkatari Elkarteak.

BAZAR AMIANO	KORREO, 44	SHANTI KIROLAK	RONDILLA, 11 Bis	GORROTXATEGI GOZOTEGIA	PLAZA ZAHARRA, 7
DAKARO	KORREO, 50	BERMUDEZ FRUTATEGIA	RONDILLA, 19	ARANBURU LIBURUTEGIA	SOLANA, 7
MAITE GOXOKIAK	KORREO, 19	MUÑAGORRI HARATEGIA	RONDILLA, 5	OGI-BERRI	ESKOLAPIOETAKO LORATEGIAK, 1
IRURA OKINDEGIA	KORREO, 50 (kaletartean)	KINU	RONDILLA, 17	OGI BERRI	NAGUSIA, 13
ALTUNA HARATEGIA	KORREO, 44	ALEJANDRO GOYA HARATEGIA	RONDILLA, 23	NATURAL BODY - B.COLLADO	NAGUSIA, 25
SUKIA HARATEGIA	KORREO, 39	XIRIMIRI TXOKOLATEGIA	ERREMENTARI, 40	KIMETZ	NAGUSIA, 23
LA CASA AZUL	KORREO, 21	INTERFILM	ERREMENTARI, 44	GORROTXATEGI DIETETIKA	NAGUSIA, 2
OGI ONA	KORREO, 37	LIZARRALDE HARATEGIA	ERREMENTARI, z/g	PIRULO'S	LEITZA z/g
NOOR	KORREO, 16	BILINTX LIBURUDENDA	AROSTEGIETA, z/g	EDEL LIBURUDENDA	LEITZA z/g
EZEIZA GOZOTEGIA	RONDILLA, 34	ZUNBELTZ DISKAK	AROSTEGIETA, 9	EL BACALAO GOXOKIAK	KORREO, 51 (KALETARTEAN)

ALDE ZAHARREKO OSTALARITZA ELKARTEA